



Arartekoaren ebazpena, 2011ko maiatzaren 13koa. Horren bidez, Abaltzisketako Udalari gomendatzen zaio lizentziarik gabeko obraren legalizazio espedientearekin jarraitzeko.

Aurrekariak

1. Abaltzisketako herritar batek Arartekora jo zuen 2010eko maiatzean udal horretan egindako eskaera bati erantzunik eman ez ziotela jakinarazte aldera. Eskaera horren bidez, (...) baserrian obra lizentzia lortzeko jarraitutako udal-izapideak ezagutu nahi zituen. Zehazki, horma baten gainean terraza bat eraikitzeagatik burututako obrak salatu zituen, auzoko bide bat kaltetu baitzuten eta ibilgailuentzat oztopo baitzen.
2. Erreklamazioa jaso ondoren, Arartekoak Abaltzisketako Udalari eskatu zion kontu horren inguruko informazioa bidal ziezaion, erreklamazioa behar bezala izapidetu ahal izateko.

Eskaerari erantzunez, alkateak 2010eko urrian txosten bat bidali zigun 2010eko urriaren 14ko udalbatzaren erabakiaren berri emateko. Bertan, adierazitako eskaera ebazten zen.

Izan ere, erreklamatzalearen salaketa jaso ondoren, kontu horren inguruko informazioa bildu zuen eta obrak udal lizentzia egokirik gabe bideratu zirela egiaztatu zuen.

Udalak onartzen zuenez, eraikitako euste-hormak eta betetzeak bidearen ikuspena oztopatzen zuten. Hori zela-eta, udalak ispilu bat kokatzea proposatu zuen gune horretan ikuspena hobetzeko.

3. Erantzun hori erreklamatzaleari igorrita, horrek udalbatzaren erabakiaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuela jakinarazi zigun. Adierazitako arrazoen artean, hirigintza legezkotasuna zaharberritzeko beharra azaldu zuen, salatutako obrek nahitaezko lizentziarik ez zutela eta plangintzako Arau Subsidiarioen ezarpenen arabera arautu ezin zirela irizteagatik.

Horren ondoren, erreklamatzaleak 2010eko abenduaren 16an Abaltzisketako udalbatzaren erabakia helarazi digu. Bertan, administrazio horrek hark jarritako berraztertze errekurtsioari erantzuten dio.

Ebazpenak obrek lizentziarik ez dutela irizten du. Halaber, Arau Subsidiarioei jarraiki, euste-hormak eta lurzatiek itxiturak bidearen ardatzetik bi metrotara kokatu behar direla aipatzen du. Nolanahi ere, udalak izapide berria ematea erabakitzen du lizentziarik gabe egindako obrak baloratzeko proiektu tekniko berri bat aurkezteko. Era berean, ebazpenak egokitzen du Sasiain eta Nahera arteko auzoko bidearen egoera aztertzea eta behin-behinean ispilu bat instalatzea ibilgailuak errazago igaro daitezen.





Bestalde, errekursoak aipatzen duenez, erreklamatzailleak bide horren gainean, ibilgailuak igarotzea zailtzen duen gunen batean, zuhaitzak landatu izana salatu du.

4. Horren ondoren adierazi digunaren arabera, ebazpenean ezarritako denbora baino gehiago igaro ondoren, ez du inolako berririk izan udalak hirigintza legezkotasuna berrezartzeko hartu dituen neurrien inguruan.

Erreklamazio hau ikusita, kexan eta Udalak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Kexa honen bidez, (...) baserrian egindako obrak, auzoko bidean kalteak sortu dituztenak, legeari egokitzen ez direla salatu da.

Arartekoari eskaintako udal erantzunean, erreklamatzaillearen salaketari erantzuteko udalak jarraitutako izapideak biltzen dira. Nolanahi ere, lizentziarik gabeko obrak egon direla egiaztatu ondoren, udalak ez du inolako neurririk hartu hirigintza legezkotasuna berrezartzeko.

2. Hirigintzako diziplinaren alorrean, udal administrazioek jardueren kontrolean eta hirigintzako antolamenduak arautzen dituen egintzen kontrolean esku hartzeko eskumena dute, hirigintzako ikuskapenak eginda eta hirigintzako lizentziak emanda.

Hain zuzen ere, hirigintzako diziplinako ahalmenei ezin diete uko egin agintariak eta funtzionarioek, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak agintzen duenez. Zehazki, hau adierazten da bigarren idatz-zatian:

“Titulu honetan araututako ahalz baliatzea utziezina da. Ondorio horretarako, agintariak eta funtzionarioak ahal horiez baliatzeko ezarritako prozedurak hasi eta izapidetzerara behartuta daude, kasuan kasu emandako epeen barruan. Betebehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna sortuko du.”

3. Azpimarratzekoa da, erantzuteko eta hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko neurri egokiak ezartzeko betebeharra salatzailearen eta salatutakoaren artean egon litezkeen balizko liskarretatik bereizi behar dela.

Erreklamazioak udalaren esku-hartzea eskatzen du bere hirigintza eskumenak betetzerakoan. Herritarren eskubidea bada ere hirigintza gaietan parte hartzea, espedienteetako agiriak eskuratuz edo udalari dagozkion espedienteak izapidetu ditzan eskatuz, eskumen horiek betetzea udalari dagokio. Espedientea hasita, udalak ofizioz bultzatu behar du eta ez da jasotzen hirigintzakoak ez diren erabakiak edo proposamenak adostea.

Hirigintzako diziplina eta ikuskaritzako ahalmena halabeharrez lotuta daude udal planeamendua eta hirigintzako legeria betetzearekin. Partikularrek ez jarduteak ez du hirigintzako legezkotasuna defendatzeko funtzio publiko hori kaltetu behar.





4. Ildo horri jarraiki, 2/2006 Legearen 221. artikulua isilpeko jardueren legalizazioaren erregimena ezartzen du. Lizentziarik gabeko obrak zeudela jakin ondoren, udalak eteteko agindua eman behar du interesdunari epea jarritz legalizazioa aurkez dezan kontuan hartu beharreko hirigintza informazioa aipatuz.

Udalak hiru hilabeteko epea dauka behin betiko ebazteko. Proiektua edo lizentziaren gaitzespena aurkezteko epea igaro ondoren, udalak obrak eraistea eta lursailak hasierako egoerara itzultzea agindu beharko du.

Horregatik, udal administrazio horrek, kasu bakoitzean ezarritako epeetan, agindu zaizkion ikuskaritza, egiaztapen eta kontrol ahalmenak gauzatzeko ezarrita dauden prozedurak jarraitu eta izapidetu behar ditu.

Erakunde honek lortu duen informazioaren bidez ezin izan dugu egiaztatu obren eta zuhaitz landaketaren hirigintza araudiaren arabera hirigintza legezkotasuna berrezartzeko espediente jarraitzen denik.

Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ondokoa egiten dugu:

12/2011 GOMENDIOA, maiatzaren 13koa, Abaltzisketako Udalarari egina

Lizentziarik gabe bideratutako obrak legeztatze espedientearekin jarrai dezan eta hirigintza legezkotasuna berrezar dezan Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 221. artikuluan xedatutakoaren babesean.

